

35.<

ANTIOKO
MUSIKALDIA

Zumarraga - 2018



ZUMARRAGA

ANTIOKO ERMITA

19:30ean

Irailak 1

Antiguan Orain

Zuzendaria: Jon Maya

Irailak 8

Sigma Project Sax Quartet

Irailak 15

Musica Boscareccia

Irailak 22

Zuhainpeko Soinuak

Irailak 29

Kup Taldea

Zuzendaria: Gabriel Baltés

IGARTUBEITI BASERRIKO DOLAREA

18:00etan

Urriak 6

Alos Quartet

Urteko edozein ostiral, arratsaldeko hiru eta erdiak. Mertzedariarren sarreran elkartzen gara, Antiorako bidearen hasieran, kotxez igo gaitzaten, gure hankak eta hauspoa ez baitaude oinez igotzeko. Zorionez, beti dago bolondresen bat igotzen gaituena.

Baselizara iritsi gara, "Arratsalde on, Ama Birjina", eta erratzak eta trapuak banatzen ditugu. Bakoitzak badu bere egitekoa eta bere lekua. Andra Mariaren jaiaren aurretik argizaria ematen dugu aldareko lurrean, belaunikaturik, beti egin den moduan. Distira, baina, makinaz ateratzen diogu, urte asko ditugu soinean. Eta lanean hasten gara: "Agur Maria... Santa Maria...". Bai, errezatuz, "*ora et labora*", barrutik ateratzen zaigulako. Batzuetan errosario osoa, beste batzuetan misterioen bat besterik ez, baina beti dugu Amatrixori zerbait esateko. Abestu ere egiten dugu, oso zaleak gara-eta! Gehienetan umetan ikasitako elizako kantuak, baina besterik ere ateratzen zaigu batzuetan, koplaren bat akaso...

Lanean ari garen bitartean, jendea etortzen hasten da: bai bertakoak, bai kanpotarrak ere. Eta beraien jakinmina asetzen saiatzen gara, beraiek gurea bezala. "Nondik zatozte?", "Hara, ba, Zaragozan egin nituen ikasketak", "ba nik badauzkat lehengusu batzuk Madrilen"... "Beraz, astero zatozte hemengo garbiketak egitera" "nahiz euri, nahiz eguzki?" "A, baina bolondres gainera?"... Bai bolondres, eta guk diogun moduan Ama Birjinak ederki ordaintzen digu!

Urteen poderioz, taldea aldatu egin da. Hasierako taldetik, Ascension, Amparo, Asun, Juanita, Maritxu... gaur egungo taldera arte, gauzak asko aldatu dira. Adinak edota osasunak erretiratzea eskatzen digu, baina, ahal dugun bitartean, hementxe jarraituko dugu.

Antio etxea da guretzat, eta horregatik ahalik eta txukunen mantentzea gustatzen zaigu. Musikaldiaren garaian, esaterako, etxera familia datorrenean bezala izaten da: garbiketaz gain, altzariren bat lekuz aldatu edo bakarren bat gehiago jartzen digute, guztiok tokia izan dezagun, eta gustora senti gaitezen.

Iraileko Musikaldiak lana eragiten digu, noski, baina baita pozak ere! Musika zaleak baikara. Guretzat ezohiko diren musika estiloak gozatzen ikasi dugu. Baita, pentsatuko ez genituzkeen pertsonaiak gertutik ikusteko aukera eman ere. Aukera handia dela uste dugu, eta sarri etortzen gara. Hori bai, garaiz etortzen gara, hemen lan egiteak ez digu-eta inongo pribilejiorik ematen eserleku on bat lortzeko orduan, baina, behin edo behin, lekua gordetzearen ohorea ere egin digute.

Adinekoak gara guztiak, bai, baina oraindik ere badugu zer egina. Amatrixoren inguruan egotearekin, ordaindutat ematen dugu gure lanak.

Nortzuk garen?

ANTIOKO GARBITZAILEAK

Cualquier viernes del año, 15.30h. Nos vamos juntando en la curva de las Mercedarias, al comienzo de la subida a la Antigua, para que nos suban en coche, ya no tenemos ni fuelle ni piernas para subir andando. Siempre hay algún voluntario que nos suba.

Llegamos a la Ermita, "Arratsalde on, Amabirjina" y empieza el reparto de trapos y escobas. Cada cual tiene asignado su espacio y su trabajo. Días antes de la fiesta de la Amatxo, incluso damos cera en el suelo del altar, arrodilladas. Siempre fue así, pero ahora sacamos brillo con una máquina. Son muchos años los que tenemos. Y comenzamos a trabajar, "Agur Maria... Santa Maria..." Rezamos, sí, "ora et labora", porque nos sale de dentro. Unos días será el rosario entero, otros, nos basta con un misterio, pero siempre tenemos algo para decirle a la Amatxo. Y también cantamos, que somos cantarinas, normalmente cantos de la iglesia, los que aprendimos de niñas, pero alguna que otra coplilla también nos sale...

Mientras trabajamos, la gente va llegando, tanto locales como foráneos. Y nos interesamos por ellos, igual que ellos se interesan por nuestra labor. Que "¿de dónde vienen ustedes?", "ah, pues yo estudié en Zaragoza", "en Madrid tengo unos primos"... "Así que vienen ustedes todas las semanas a limpiar", "¿haga el tiempo que haga?", "pero ¿qué me dice? ¿Que son voluntarias?"... Pues sí, así es, somos voluntarias y como solemos decir entre nosotras, la Virgen nos lo paga con creces.

A lo largo de los años, el grupo ha ido variando. Desde Ascensión, Amparo, Asun, Juanita, Maritxu... hasta el grupo que formamos hoy, las cosas han cambiado mucho. La edad o la salud nos van buscando el retiro, pero mientras podamos, seguimos.

Tenemos Antigua como nuestra casa, y así, procuramos que luzca lo mejor posible. La llegada del Ciclo de Música es como cuando viene la familia, aparte de la limpieza, igual nos mueven un mueble o se pone un supletorio para que quepamos todos y estemos a gusto.

El Ciclo de Música nos da trabajo, sí, pero también nos da muchas satisfacciones. Nos gusta la música. Hemos aprendido a disfrutar de estilos lejos de nuestro alcance, hemos podido ver de cerca figuras que probablemente no habríamos esperado conocer en nuestra vida. Pensamos que es una gran oportunidad, y nos hemos hecho asiduas. Venimos con tiempo, trabajar aquí no nos proporciona ningún privilegio a la hora de encontrar un buen asiento, pero alguna vez nos han hecho el honor de reservarnos sitio.

Somos todas mayores, sí, pero todavía podemos aportar nuestro granito de arena. Nos consideramos pagadas por estar cerca de la Amatxo todo este tiempo.

¿Qué quiénes somos?

Antioko Ermitan

irailak 1 - 19:30ean

ANTIGUAN ORAIN

Herri musika, dantza eta kantagintza. Aintzinakoa eta oraingoa. Aintzinakoa gaurko begietatik eta oraingoa aintzinako sustraietatik. Antioko basiliza kontzertu berezi honen lekuko bihurtu nahi dugu. Eszenatoki berezi bat, ekitaldi berezi baterako. Izan ere, Antioko basilizan aurkezteko emanaldi berezi bat da hau, aurretik inoiz taularatu gabea.

Emanaldi berezi hau gorpuztuko duten protagonistak ere ezin bereziagoak dira. Thierry Biskary kantuan, Kukai Dantza eta Iñaki Salvador piano eta soinuan; Jon Mayaren zuzendaritzak hiru elementuak goxotasunez uztartuko dituelarik.

Kantua; dantza eta musika bakarka, elkarren artean gurutzatuta eta guztiak bat-egia da ikus-entzuteko aukera emango digu emanaldiak.

Música, danza y canto popular. La antigua y la de ahora. La antigua desde la mirada actual, y la actual desde las raíces antiguas. Queremos que la ermita de la Antigua sea testigo de este concierto especial. Un escenario especial para una actuación especial. Y es que es una representación singular para mostrar en la ermita de la Antigua, nunca antes puesta en escena.

Los protagonistas que van a dar cuerpo a esa actuación no pueden ser más particulares. Thierry Biskary en canto, Kukai en danza, e Iñaki Salvador al piano y melodía; Jon Maya será el director que unirá con delicadeza los tres elementos.

La actuación nos dará la oportunidad de escuchar y ver canto, danza y música individualmente, entrecruzados entre sí y a todos a la vez, unidos.

Aintzinako doinuen interpretazio berri bat sentitzeko eta gure sus-
traietan oinarritutako sorkuntza
garaikidearekin bideberrietan ba-
rreiatzeko. Izan ere, emanaldi ho-
netako protagonistak ibilbide
oparoa ari dira egiten kultura tra-
dizionaletik abiatutako sorkuntza
garaikide bat eginez. Orain, elkarre-
kin, emanaldi berezi hau eskainiko
digute.

Para sentir una nueva inter-
pretación de los sonidos antiguos
y para introducirnos en los nuevos
caminos que nos conduce la
creación contemporánea basada
en nuestras raíces. Y es que los
protagonistas de esta actuación
están haciendo un recorrido muy
fructífero, realizando una creación
contemporánea a partir de la
cultura tradicional. Ahora, todos
juntos, nos van a ofrecer esta
actuación tan especial.

Zuzendaritza: **Jon Maya Sein**

Kantua: **Thierry Biskary**

Dantzariak: **Alain Maya, Eneko Gil, Ibon Huarte, Jon Maya, Martxel
Rodríguez eta Urko Mitxelena**

Pianoa/Soinua: **Iñaki Salvador**

Audio teknikaria: **Angel Agüero**

Produkzioa: **Nagore Martínez eta Doltza Oar-arteta**

Antioko Ermitan

irailak 8 - 19:30ean

EGITARAUA

WEST WINDS

I

P. Glass String Quartet nº5 (1991)
(1937) (Transcripción de Teresa Lufuluabo Pastor)
Movements I – II – III – IV – V

II

L.Berstein	100 Aniversario de su nacimiento
(1918-1990)	West Side Story (versión para violín solista y cuarteto de saxofones de Henk Huizinga)
	Prologue
	Jet song
	Blues
	Somewhere
	Procession Et Nightmare
	Scherzo
	Mambo
	Cha-cha-cha
	I feel pretty
	Maria
	Cool
	America
	One hand one heart
	Gee, officer krupke
	Tonight
	A boy like that
	I have a love
	The rumble
	Finale

SIGMA PROJECT Sax Quartet

**Andrés Gomis, Ángel Soria, Alberto Chaves, Josetxo Silguero, Saxofoi
Ceciia Bercovich, Biolin**

SIGMA PROJECT

"*Summam indicabimus signo Σ* ". Baieztapen honekin, 1755ean, Léonard Euler, historiako matematikari garrantzitsuenetakoa bat, sigma letra larria erabiltzen hasi zen (alfabeto grekoko hemezortzigarrena) batuketaren sinbolo gisa. Geroztik, Sigmak adierazten du elementu serie finitu edo infinitu baten batukaria.

"Beharrezkoa al da, 2017an, Sigma Project aurkeztea? Hamar urteko ibilbidean eskaini duten kontzertu kopuru itzelak –batez ere Europan eta Latinoamerikan–, denbora horretan enkargatutako lan bolumenak, eta sei produkzio diskografikotik parte hartu izanak bermatu egiten dute Espainiako talde aktiboenetakoa gisa, eta sorkuntza berriko musikaren enbaxadore gisa betetzen duten eginkizun nabarmena. José Luis Besada, musikologoa (Paris, 2017ko apirila).

SIGMA PROJECT taldearen modularitate markatua doa lau instrumentu berdineko formazioaren homogeneousunetik gehieneko instrumentu dibertsitatearaino, eta azkeneko ezaugarri hori da gehien baloratzen dena gaur egungo konposizio joeretan.

Latinoamerikako agertoki garrantzitsuenetan aritu da SIGMA Project (Buenos Aireseko Colon antzokia, Mexikoko arte ederretako jauregia, Txileko Santiagoko GAM auditorioa, Jamaikako Rose Hall Great House), baita Europako eta Espainiako bere ohiko zirkuituan ere.

2018an, X. urteurrenaren bira aurkezten ari da hainbat herrialdetan, besteak beste, Argentina, Kolonbia, Jamaika, Mexiko eta Tunezen, baita hainbat hiritan ere: Berlin, Cambridge, Zagreb, Kordoba, Madril, Bilbo, Valentzia, Donostia, Cáceres...

"*Summam indicabimus signo Σ* ". Con esta afirmación, uno de los más importantes matemáticos de la historia, Léonard Euler, inauguró en 1755 el empleo de la letra sigma mayúscula (decimoctava del alfabeto griego) como símbolo de suma. Desde entonces, Sigma representa el sumatorio de una serie finita o infinita de elementos.

"¿Resulta necesario presentar en 2017 a Sigma Project? La ingente cantidad de conciertos que han ofrecido –principalmente en Europa y Latinoamérica– durante su década de andadura, el volumen de obras encargadas durante dicho periodo, y la participación en seis producciones discográficas avalan su notorio papel como una de las más activas agrupaciones españolas, como embajadores de la música de creación reciente." José Luis Besada, musicólogo (París, abril, 2017).

La marcada modularidad de SIGMA PROJECT abarca desde la homogeneidad de la formación de cuatro instrumentos iguales hasta su máxima diversidad instrumental, cualidad ésta muy valorada en las actuales tendencias compositivas.

SIGMA Project ha actuado en los principales escenarios latinoamericanos (Teatro Colón de Buenos Aires, Palacio de Bellas Artes de México, Auditorio GAM de Santiago de Chile, Rose Hall Great House de Jamaica) así como en su circuito habitual europeo y español.

En 2018 se encuentra presentando su gira X aniversario en países como Argentina, Colombia, Jamaica, México, Túnez así como en Berlín, Cambridge, Zagreb, Córdoba, Madrid, Bilbao, Valencia, San Sebastián, Cáceres...

Sigma Project-ek laguntzaile ditu Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutua, Eusko Jaurlaritzaren Etxepare Institutua, eta, horrez gain, Selmer, D Addario eta Punto Rep enpresen babesletza jasotzen du.

SIGMA Project desarrolla su actividad con el apoyo del Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música y el Instituto Etxepare del Gobierno Vasco, además de contar con el patrocinio de Selmer, D Addario y Punto Rep.

CECILIA BERCOVICH

Biolin eta biola interpretatzaile moldakorra da. Victor Bercovich aitzak hezi izan du beti, eta bi instrumentuetan goi mailako eta graduondoko ikasketak osatu zituen ohorezko matrikula lortuz.

Bere ibilbide musikala askotarikoa da, concertino eta sekzio buru gisa aritu izan da Pierre Boulez, Matthias Pintscher, Heinz Holliger, Krystof Penderecki, David Robertson edo Peter Eötvös bezalako maisu ospetsuen zuzendaritzapean, Luzernako, Turingo MITO edo Bayreutheko Wagner Festpiele jaialdietan. Azken horretara gonbidatu zuten 2013ko Espainiako Wagner Saria irabazi ondoren. Espainiako areto garrantzitsuenetan jotzen aritzen da, baita atzerriko agertoki ospetsuetan ere.

Kamera musikak eta inprobisazioak bere ibilbide artistikoaren zati handi bat hartu izan dute beti, eta interpretatzaile gailenekin batera lan egin du. Germain Trumpf luthierak egindako biolina eta biola jotzen ditu Ceciliak, eta Trio Arbos (Musikako Sari Nazionala) taldeko kide da 2014ko apirilaz geroztik.

Es una versátil intérprete de violín y viola. Formada siempre por su padre, Víctor Bercovich, completó los estudios superiores y de posgrado en ambos instrumentos obteniendo Matrícula de Honor.

Manteniendo un itinerario musical muy variado, ha actuado como concertino y líder de sección bajo la dirección de maestros como Pierre Boulez, Matthias Pintscher, Heinz Holliger, Krystof Penderecki, David Robertson o Peter Eötvös en los festivales de Lucerna, MITO de Turín o el Wagner Festpiele de Bayreuth, al que fue invitada tras ganar el Premio Wagner de España en 2013. Es habitual su presencia en las más importantes salas nacionales e internacionales.

La música de cámara y la improvisación han ocupado siempre una buena parte de su trayectoria artística, colaborando con destacados intérpretes. Cecilia toca un violín y una viola contruidos por el luthier Germain Trumpf, y forma parte del Trío Arbós (Premio Nacional de Música) desde abril de 2014.

Antioko Ermitan

irailak 15 - 19:30ean

EGITARAUA

ROMA 1709: Haendel vs. Scarlatti

G.F.Haendel Agrippina condotta a morire
(1685-1759)

Recitativo: *Dunque sara ur vero* – Aria: *Orrida, oscura, l'etra si renda*

Recitativo: *Ma pria che d'empia morte* – Aria: *Renda cenere il tiranno*

Recitativo: *Si, si, del gran tiranno* – Arioso: *Come, o Dio!*

Aria: *Se infelice al mondo vissi* – Recitativo: *Trema l'ingrato figlio*

Aria: *Su lacerate il seno* – Recitativo: *Ecco a morte gia corro*

D. Scarlatti Sonata en re menor para dos violines y bajo
(1685-1757) continuo sobre sonatas para clave

A.Mercero Andante

Alegro

Adagio e cantabile

Allegro

G. F. Haendel Trío sonata en Fa Mayor op 5 nº6
(1685-1759)

Largo

Allegro

Adagio

Allegro

Menuett: Allegro moderato

D. Scarlatti Pur nel sonno al men tal' ora
Introduzione: [sin indicación de tempo] - Minuet
Aria: Pur nel sonno al men tal ora
Recitativo: Pria dell aurora - Aria: Parti con l ombra

MUSICA BOSCARECCIA

Alicia Amo, Soprano

Andoni Mercero, Biolin eta zuzendaritza

Alexis Aguado, Biolin

Mercedes Ruiz, Txello

Carlos García Bernalt, Klave

Juan Carlos de Mulder, Tiorba

MUSICA BOScareccIA

Ensambla bere izena hartzen du Johann Hermann Scheinek Leipzigen 1621ean argitaratu zuen abesti bilduma batetik: «Boscareccia musika” -basoko musika edo “Wald Liederlein” -basoko abestitxoak-, edizio honetako lehen orrialdeak dioen bezala. Hainbat musika-tresna erabiltzen dituen talde bat da, batez ere XVII. eta XVIII. mendetako ahozko kamera erreperitorioa duena. Erreperitorioa, beraz, oso zabala eta desberdina da, jendeak gutxi ezagutzen dituen konposizioek, argitaratu ez diren obrek eta nork aurkituko zain dauden piezek osatua.

Duela gutxi musika ondare garrantzitsua berreskuratu du Madrilgo Errege Kaperako Artxibotik, Francesco Corsellik konposatutako lau kamera kantata, hain zuzen, orain arte ezagutzen ez zirenak.

Bertako kideak Espainiako eta nazioarteko talde barroko nagusiekin aritzen dira, eta ohikoa da musika festibal eta kontzertu areto garrantzitsuetan kontzertuak ematea.

Musica Boscarecciak kontzertuak eman ditu, besteak beste, honako toki hauetan: Santanderko Nazioarteko Jaialdian, Casalarreinaiko Antzinako Musika Jaialdian, Arabako Antzinako Musikaren Astean, Leongo Organo Jaialdian, Sevillako orkestra barrokoaren denboraldian, Cadizko Musika Espainiarreko Jaialdian, Salamanca Barrokoaren zikloan eta Burgosko Cordón kultur zikoan.

Ondorengo toki eta jaialdietan kontzertuak emateko konpromisoak hartuta dauzkate: Madrilgo Arte Sakratuaren Jaialdia, Oviedoko Felipe Printzearen Auditorioa, Aranjuezeko Antzinako Musika Jaialdia, Sevillako Antzinako Musika Jaialdia eta Madrilgo Auditorio Nazionalen Unibertso Barrokoaren zikloa.

El ensemble toma prestado su nombre de la colección de canciones publicada por Johann Hermann Schein en Leipzig en 1621 (“Musica Boscareccia” - música del bosque- o “Wald Liederlein”-cancioncillas del bosque-, como reza la primera página de esta edición). Es una agrupación de instrumentación variable que se dedica principalmente a la interpretación del repertorio vocal camerístico de los siglos XVII y XVIII. Se trata por tanto de un repertorio amplio y variado que aún encierra muchas composiciones poco conocidas por el gran público, obras inéditas y piezas que todavía esperan a ser redescubiertas.

Recientemente ha desarrollado un importante proyecto de recuperación de patrimonio musical al rescatar del Archivo de la Capilla Real de Madrid cuatro cantadas de cámara inéditas compuestas por Francesco Corselli

Sus miembros colaboran regularmente con algunas de las principales agrupaciones barrocas del panorama musical español e internacional y su actividad concertística les lleva a participar en los más importantes festivales de música y salas de concierto.

Musica Boscareccia ha ofrecido conciertos en el Festival Internacional de Santander, el Festival de Música Antigua de Casalarreina, la Semana de Música Antigua de Alava, el Festival de Órgano de León, la temporada de la orquesta Barroca de Sevilla, el Festival de Música Española de Cádiz, el ciclo Salamanca Barroca y el ciclo Cultural Cordón de Burgos.

Entre sus próximos compromisos caben destacar sus conciertos en el Festival de Arte Sacro de Madrid, el Auditorio Príncipe Felipe de Oviedo, el Festival de Música Antigua de Aranjuez, el Festival de Música Antigua de Sevilla y el ciclo Universo Barroco en el Auditorio Nacional de Madrid.



Antioko Ermitan

irailak 22 - 19:30ean

EGITARAUA

ZUHAINPEKO SOINUAK

1. Nafarroa..... Hitz eta musika: JM Bedaxagar
2. Urzo bat jin izan da..... Herrikoia
3. Sortze eta sartze eta martxa - Musika Sacha Standen eta herrikoia
4. Maitea non zira - Herrikoia
5. Gerla kanta - Hitzak Junes Casenave, musika: Beñat Axiari
6. Onbuarena - hitzak: Pedro Mari Otaño. Musika: Juan Mari Beltran
7. Lapurtar motxak - Dantza jauzi herrikoia
8. Txalaparta: Gaztain egosiak - Juan Mari Beltran-herrikoia
9. Aro berria - Hitzak eta musika JM Bedaxagar
10. Durunbele - Herrikoia - JM Beltran
11. Txori erresiñola - Herrikoia
12. Dultzainatik txanbelara... Jota Porrusalda Martxa -
Hitzak: Juan Mari Beltran.
Musika: herrikoia-Juan Mari Beltran
13. Ahaide delizius hontan (Etxahun Barkoxe) eta
Gaztetarzunak bainerabila (herrikoia)
14. Begira begira nago - JM Beltran-herrikoia
15. Urzoa: Nestor Basterretxeari Habanera
Hitzak JM Bedaxagar.
Musika Sebastian Iradier.
16. Erradak anaia - Hitzak eta musika M. Etxekopar
17. Ekiaren dantza - Hitzak Dom. Rekalt, musika M. Etxekopar
18. Goizean argi hastean (Hitzak eta musika Etxahun Iruri)
19. Mazurka. Herrikoia

Zuhainpeko soinuak -Ahozko Transmisioa

ahozko transmisioaren ideia nabarmen-tzen duen ikuskizuna da. Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean Jean Mixel Bedaxagar ikusi ahal izango dugu, musika zuberotarraren adierazlerik nagusi-entakoa, eta eszenatokia partekatuko du euskal herri-musikaren erreferentzia den Juan Mari Beltranekin. Melodia berriak sortuko dituzte honako hauek lagun dituztelarik: Mixel Etxekopar, Mathieu Mendizabal, Sacha Standen, Pierre Vissler, Maider Ansa, Ander Barrenetxea eta Aitor Beltrán, bakoitza bere tradiziozko sustraietatik abiatuz.

Zuhainpeko soinuak -Ahozko Transmisioa

es un espectáculo en el que destaca la idea de la transmisión oral. Dirigido por Mireia Gabilondo, podremos ver al máximo exponente de las músicas suletinas, Jean Mixel Bedaxagar, compartiendo escenario con uno de los referentes de la música popular vasca, Juan Mari Beltrán. Junto a Mixel Etxekopar, Mathieu Mendizabal, Sacha Standen, Pierre Vissler, Maider Ansa, Ander Barrenetxea y Aitor Beltrán crearán nuevas melodías partiendo de sus raíces más tradicionales respectivamente.

Antioko Ermitan

irailak 29 - 19:30ean

EGITARAUA

J. Gallus Elisabethae vero impletum est tempus
(1550-1591)

G. A. Homilius Die mit Tranen säen
(1714-1785)

J. Brahms Darthulas Grabesgesang
(1833-1897)

F. Poulenc De tous les printemps du monde
(1899-1963)

B. Britten Advance democracy
(1913-1976)

M. Waldenby Hominis dies
(1953-)

L de Aramburu Kitolis
(1905-1999)

J.P. Sweelinck Gaude et laetare
(1562-1621)

G.A. Homilius Die mit Tranen säen
(1714-1785)

J. Brahms Hör, es klagt die Flöte wieder
(1833-1897)

J. Eguiguren Et j'aime uniquement
(1945-)

Z. Randall Stroope The conversion of Saul
(1953-)

Kup Taldea
Zuzendaria: **Gabriel Baltes**

KUP TALDEA

Hamabost urte igaro dira gazte-talde hura Gabriel Baltes maisuarengana joan eta KUP Taldea sortzea erabaki zutenetik. Ibilbide laburra, gure musika-tradizioaren oinarri diren talde askoren aldean, baina baita oparo bezain aberatsa ere, horren denbora-tarte txikian, etenik gabe, lortu dituzten lorpen eta garaipenak kontuan hartzen baditugu.

Ibilbide gorakor horren adibide ditugu, besteak beste, exijentzia handiko egitarauak (Brahms, Mendelssohn Poulenc edota Bach bezalako maisu handien programa monografikoak esaterako), etxean bertan nahiz atzerrian (Espainian, Frantzia, Luxenburgon, Eslovenia, Taiwan...) emandako kontzertu eta birak, grabaketak (*Priez Pour Paix*- Aita Donostiaren Eliz Musika) edota nazioarteko lehiaketa arrakastatsuak:

- 2008: Tolosako Abesbatzen Lehiaketa (3. saria folklore sailean).
- 2009: Mariborreko (Eslovenia) Nazioarteko Lehiaketa (1. saria eta zuzendari onenaren saria).
- 2010: Tourseko (Frantzia) Internacional Florilège Vocal (3 lehen sari: abesbatza mistoak, programa libre eta berpizkundea) eta Sari Nagusia.
- 2011 Abesbatzen Europako Sariketa Nagusia.

2017. urtean, eta egindako lan guztiaren sari gisa, uztaillean Bartzelonan ospatu zen XI. Abesbatzen Munduko Sinposiurmean parte hartu zuen taldeak.

Hautaketa-prozesu zorrotza gainditu ostean, bertan izan da KUP TALDEA, bihotza ahoan, euskal abesbatzak harrotasun eta duintasunez ordezkatzuz.

Uztailaren 28tik abuztuaren 6ra bitartean Taiwanen ospatutako 18. Taipei Interna-

Han transcurrido más de diez años ya desde que aquel grupo de jóvenes acudiera donde el maestro Baltés con la idea de crear un nuevo grupo vocal: KUP Taldea. Puede que diez-doce años no sean muchos en la vida de un coro, si los comparamos con los años de historia con que cuentan tantas y tantas agrupaciones de nuestra más arraigada tradición musical. Sin embargo, han sido suficientes para dar muestra de una trayectoria brillante, copada de logros y éxitos.

Muestra de dicha progresión son: programas de gran exigencia y complejidad, conciertos y giras tanto dentro como fuera de nuestras fronteras, así como grabaciones ó concursos internacionales con exitosos resultados:

- 2008: Certamen Coral de Tolosa (3er premio en folclore).
- 2009: Certamen Internacional de Maribor, Eslovenia (1er premio y premio al mejor director a Gabriel Baltés).
- 2010: Internacional Florilège Vocal de Tours, Francia (3 primeros premios: coros mixtos, programa libre y renacimiento) y Gran Premio.
- 2011: Gran Premio Europeo de Canto Coral.

El año 2017, y como reconocimiento al trabajo realizado hasta el momento, KUP Taldea tomo parte en la XI. Edición del Simposio Mundial de Coros celebrado en Barcelona..

Después de haber superado un riguroso proceso de selección, ahí ha estado KUP TALDEA, "con todo su sentimiento", representando con orgullo y dignidad a los coros vascos.

KUP TALDEA ha estado en Taiwan del 28 de julio al 6 de agosto en el renombrado

tional Choral Festival jaialdi ospetsuan izan da KUP taldea. Europako beste 5 abesbatza gonbidatuekin batera. Bertan 8 emanaldi eskaini dituzte.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera, Zinemaldiaren barruan zine musikaren emanaldi berezia eskaini dute Donostiako Velodromoan, Fernando Velázquezen zuzendaritzapean.

18. Taipei International Choral Festival, junto con otros cinco coros invitados de Europa, donde han ofrecido 8 actuaciones.

Junto con la Orquesta Sinfónica de Euskadi y dentro de Zinemaldia, han ofrecido una actuación de música cinematográfica en el velódromo de San Sebastián, bajo la dirección de Fernando Velázquez.

IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

urriak 6 - 18:00etan

EGITARUA

- X. Zeberio Olatu Dantza
Arin
- H. Mtz de San Vicente Hilarriko mozkorra
- X. Zeberio / H. Mtz de San Vicente ... Kanaky
- X. Zeberio Badoa
- Herrikoia Leitza
- X. Zeberio Irail Dantza
- P. Ramirez / X. Zeberio Uherak. We are
- X. Zeberio Laztan bat
- X. Zeberio Hosto Dantza
Fan & Go
- S. Dobrogosz A Ragtime

ALOS QUARTET

Xabier Zeberio, Nyckelharpa, Biolin
Francisco Herrero, Biolin
Lorena Nuñez, Biola
Iva Carmnona, Txello

Autobus zerbitzua doan izango da. Irteera Zumarragako Elizkalen izango da 17:30etan eta itzulera kontzertua amaitzean.

Leku mugatuak.

Servicio de autobús gratuito, con salida en Elizkale de Zumarraga a las 17:30. Regreso al finalizar el concierto.

Aforo limitado.



ALOS QUARTET

Alos Quartetek 1999an ematen ditu lehen pausoak. Musika klasiko naiz modernoan esperientzi zabaleko musikariek osatzen dute. Orkestra ezberdinekin lan egiteaz gain, taldekideak folk talde ezberdinetako partaide ere badira (Oskorri, Benito Lertxundi) eta baita Euskal Herriko hainbat musika proiektutako ohikokolaboratzaile ere.

Taldearen erreperitorio zabalak, harizko laukoteko formatutik abiatuta, gaur egungo musikaren esparru anitzak arakatzen ditu ikuspuntu berri bat eskainiz, estilo ezberdinen uretan aurreiritzirik gabe eta naturaltasunez murgilduz.

Sorreratik hona, grabaketa eta kontzertu zerrenda luzea osatu du taldeak.

Kolaborazio estuenetariko bat, Dulce Pontes abeslari portugaldarrarekin burututakoa izan zen, estatuko Espainiarreko naiz Portugalgo antzoki garrantzitsuenetan hainbat bira eginez (besteak beste Madridlgo kongresu jauregian, Bartzelonako Auditorin, Lisboako Coliseo Teatroa etb. kontzertuak eskainiz)

Honako artistekin ere lan egin du Alos Quartetek, hala nola, Kepa Junkera, Oskorri, Carlos Nuñez, Oreka TX, Ken Zazpi, Esne Beltza, La Buena Vida, Los Piratas, El Hombre Burbuja, Bide Ertzean, Angel Unzu etabar.

Alos Quartet se crea en 1999. Está formado por músicos con una amplia trayectoria artística tanto en música clásica como en la moderna. Además de trabajar con orquestas de gran prestigio como la Joven Orquesta de Euskadi, Orquesta de Euskadi, Joven Orquesta Nacional de España, etc., sus componentes son miembros de grupos de música folk (Oskorri, Benito Lertxundi).

Su repertorio abarca diferentes terrenos dentro de la música actual ofreciendo una perspectiva novedosa partiendo de la formación clásica del cuarteto de cuerda.

En sus quince años de historia el cuarteto Alos acumula numerosas actuaciones y grabaciones.

Entre las colaboraciones más importantes cabe destacar las giras que ha realizado acompañando a la cantante portuguesa Dulce Pontes, actuando en los escenarios más importantes del Estado Español y Portugal; Palacio de Congresos de Madrid, Auditori de Barcelona, Teatro Coliseo de Lisboa etc...

Alos Quartet también ha trabajado tanto en directo como en grabaciones con artistas de la talla de; Kepa Junkera, Oskorri, Carlos Nuñez, Oreka TX, Ken Zazpi, Los Piratas, El Hombre Burbuja, Bide Ertzean, Angel Unzu y un largo etc.





35. <

ANTIOKO
MUSIKALDIA

Zumarraga - 2018

L.G. / D.L. SS 621-2018

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Cultura,
Turismo, Juventud y Deportes



ZUMARRAGAKO
UDALA